| | |
|---|---|
| **BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGUA, TOLOSAKO PARKE, LORATEGI, BERDEGUNE ETA KALEKO ZUHAITZEN MANTENTZE-LANAK EGITEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO (ENPLEGUKO ZENTRO BEREZIEI ERRESERBATUA).** | **PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACIÓN DE SERVICIOS DE MANTENIMIENTO DE PARQUES, JARDINES ZONAS VERDES Y ARBOLADO VIARIO DEL MUNICIPIO DE TOLOSA (RESERVADO A CENTROS ESPECIALES DE EMPLEO )** |
| **I.- <u>KONTRATUAREN EDUKIA</u>** | **I.- <u>CONTENIDO DEL CONTRATO</u>** |
| 1. KONTRATUAREN HELBURUA | 1. OBJETO DEL CONTRATO |
| Plegu honi jarraiki sinatutako kontratuaren helburua izango da Tolosako parke, lorategi, berdegune eta kaleko zuhaitzen mantentze-lanak egiteko zerbitzua ematea (Enpleguko zentro bereziei erreserbatua), baldintza teknikoen pleguan, plegu honetan eta kontratuaren adjudikaziodun izaten den eskaintzan zehaztutako baldintzen arabera. | El contrato que en base al presente pliego se realice tendrá por objeto la prestacion del servicio de mantenimiento de parques, jardines, zonas verdes y arbolado viario del municipio de Tolosa, (Reservado a Centros Especiales de Empleo) en las condiciones determinadas en el Pliego de Condiciones de Prescripciones Tecnicas, en el presente Pliego y en la oferta que resulte adjudicataria del contrato. |
| Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legeak, urriaren 30ekoak, zazpigarren xedapen osagarrian ezarritakoaren arabera, kontratu hau enpleguko zentro bereziei erreserbatuta dago, eta zentro horietako langileen % 70ek, gutxienez, ezgaitasunen bat izan behar du, haren ezaugarriengatik edo larritasunagatik egoera normalean jarduera bat egitea eragozten diona. | El presente contrato queda reservado, en base a la Disposición Adicional séptima de la Ley 30/2007, de 30 de Octubre, de Contratos del Sector Publico, a Centros Especiales de Empleo con al menos el 70% de los trabajadores con discapacidad que, debido a la indole o a la gravedad de sus deficiencias, no puedan ejercer una actividad en condiciones normales. |
| 2. EXEKUTATZEKO EPEA | 2. PLAZO DE EJECUCIÓN |
| Kontratuak **lau (4)** urte iraungo du, sinatu eta hurrengo egun baliodunetik kontatzen hasita. Urtero luzatu daiteke, baina prestazioa, guztira, gehienez ere **6** urtekoa izango da. | El plazo total de ejecución de la prestación será de **4** años, contado a partir del siguiente día hábil al de la firma del contrato, siendo susceptible de prórrogas anuales, sin que la duración total de ésta pueda exceder de **6** años. |
| Epeak betetzen ez badira, esleipendunak berandutzeagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Udalak aurretik ez ohartarazi. | El contratista se entenderá incurso en mora por el transcurso del plazo citado, no siendo necesaria intimación previa por parte de la Administración. |
| 3. KONTRATUAREN PREZIOA | 3. PRECIO DEL CONTRATO |
| Kontratuaren prezioa urtean 400.000 eurokoa izango da (BEZa barne); zenbateko hori eskatzaileek hobetu dezakete. | El precio del contrato, IVA incluido, será de 400.000 euros anuales, cantidad que podrá ser mejorada por los licitadores. |
| Lizitatzaileak bere proposamenean adierazi | En su propuesta los licitadores indicaran el |

| | |
|---|---|
| behar du urteko prezioa, guztira, BEZa barruan dela, eta zehaztu behar du A, B, C eta D zonetako urteko mantenimendu orokorraren prezio unitarioa m2 bakoitzeko. | precio total anual por la realización del servicio, incluido el Impuesto sobre el valor Añadido, detallando el precio unitario por $m^2$ de mantenimiento general anual de las zonas clasificadas como A, B, C y D. |
| 4. FINANTZAKETA | 4. FINANCIACIÓN |
| Kontratuaren prezioa ordainduko da urteko aurrekontuaren kargura, eta exekuzioaren hasiera baldintzatuko du orduan dagoen aurrekontu kredituak. | El precio del contrato se sufragará con cargo al presupuesto del año que corresponda, y el inicio de la ejecución estará condicionado a la existencia de crédito presupuestario en ese momento. |
| Aurrekontuen arloan eskumena duen organoak konpromisoa hartzen du kontratuak iraungo duen hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar diren kredituak gordetzeko. | El órgano competente en materia presupuestaria se compromente a reservar los creditos oportunos en los presupuestos de los ejercicios futuros que resulten afectados. |
| 5. ORDAINTZEKO MODUA | 5. FORMA DE PAGO |
| Kontratuaren prezioa hilero ordainduko da, aurrez faktura aurkeztu eta onartuta. | El pago del precio del contrato se realizará mensualmente previa presentación y conformidad de la factura correspondiente. |
| 6. PREZIOAK BERRIKUSTEA | 6. REVISIÓN DE PRECIOS |
| Kontratuko prezioak berrikusi ahal izango dira 30/2007 Legeko 77. artikuluaren arabera (Sektore Publikoko Kontratuen Legea, urriaren 30ekoa). | El presente contrato podrá ser objeto de revisión de precios, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 77 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público. |
| Nolanahi ere, lizitatzaileek Udalari proposatu ahal izango dizkiote prezioen berrikuspenaren eragin ekonomikoei buruzko hobekuntzak. | No obstante, los licitadores podrán proponer mejoras para el Ayuntamiento de Tolosa sobre los efectos económicos de la revisión de precios. |
| Berrikusteko honako formula hau erabiliko da: kontratuaren prezioa urtero berrikusiko dute eta Euskal Autonomia Erkidegoko KPIak izan duen aldaketa aplikatuko dute. | La fórmula a aplicar en la revisión será la siguiente: el precio del contrato se revisará anualmente, mediante la aplicación de la variación que experimente el Indice de Precios al Consumo en la CCAA Vasca. |
| 7. BERMEAK | 7. GARANTÍAS |
| • Behin-behinekoa: 9.000 euro. Aurkeztu daiteke Sektore Publikoko Kontratuen Legeko (SPKL) 91. artikuluak jasotzen dituen moduetako edozein erabilita.<br>• Behin betikoa: Adjudikazioaren | • Provisional: 9000 euros. Podrá presentarse en cualquiera de las formas señaladas en el artículo 91 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público. |

| | |
|---|---|
| zenbatekoaren % 5 (BEZik gabe). | • Definitiva: 5% del importe de adjudicación, excluido IVA. |
| Berme hori osatzeko hamabost egun baliodun izango ditu, kontratugilearen profilean behin-behineko esleipena argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Bermea osatu dezake Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legeko 84. artikuluan agertzen diren moduetako edozein baliatuta. | El plazo para la constitución de garantía definitiva será de quince días hábiles contados a partir del siguiente al de la publicación en el perfil del contratante, y podrá constituirse en cualquiera de las formas señaladas en el artículo 84 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público. |
| Bermea bueltatuko da (osorik edo parte bat) Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legeak, urriaren 30ekoak, 90. artikuluan zehaztutakoari jarraiki. | La devolución de la garantía, tanto total como parcial en su caso, se realizará de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 90 de la Ley. 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público. |
| 8. KONTRATUA EXEKUTATZEA | 8. EJECUCIÓN DEL CONTRATO |
| Kontratua exekutatuko da kontratistaren arrisku eta menturara. | La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura del contratista. |
| Kontratua gauzatzeko kontuan hartu behar dira plegu honetako klausulak eta, hala badagokie, espedienteko zehazpen teknikoak. Administrazioak lanak zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuko ditu eta eskumen horiek baliatuko ditu idatziz zein ahoz. | El contrato se ejecutará con sujeción a las cláusulas contenidas en el presente pliego y, en su caso, a las especificaciones técnicas unidas al expediente, bajo la dirección, inspección y control de la Administración, quien ejercerá estas facultades tanto por escrito como verbalmente. |
| Kontratua okertzen bada kontratugileari eta kontratugilearen mende dauden pertsonei egozteko moduko jarduera edo hutsegiteengatik, Administraziok egokiak iruditzen zaizkion neurriak har ditzake, kontratua berriz ere behar bezala gauzatu dadin lortze aldera. | Cuando por actos u omisiones imputables al contratista o a personas de él dependientes se comprometa la buena marcha del contrato, la Administración podrá exigir la adopción de las medidas que estime necesarias para conseguir o restablecer el buen orden en la ejecución del mismo. |
| 9. KONTRATISTAREN LAN BETEKIZUNAK | 9. OBLIGACIONES LABORALES DEL CONTRATISTA |
| Kontratutako enpresak betekizun hauek ditu: | La Empresa contratada quedará obligada a: |
| a) Lan, Gizarte Segurantza eta segurtasun eta higiene alorreko lege xedapenak betetzea. | a) Cumplir las disposiciones legales vigentes en materia laboral, seguridad social, seguridad e higiene en el trabajo y prevención de riesgos laborales. |
| b) Kontratua gauzatzea Klausula Ekonomiko, Administratibo eta Teknikoen Agiri honetan eta kontratuari buruzko gainerako dokumentuetan ezarri bezala. | b) Ejecutar el contrato en la forma prevista en este Pliego de Cláusulas Económico-Administrativas y Técnicas y en los demás documentos que constituyan el |

| | |
|---|---|
| c) Kontratuaren helburua eta kontratuan jarritako mugak errespetatzea, eta kontratua betetzea arduraz eta behar bezala exekutatzen dela bermatuta.<br><br>d) Tolosako Udalak emandako jarraibideak kontuan hartzea eta Zerbitzu Publikoen ordezkariari edo horretarako izendatutako langileari kontratuaren egikaritzea ikuskatzen uztea.<br><br>e) Behar diren langile guztiak zerbitzuan jartzea, kontratua behar bezala gauzatzeko. Nolanahi ere, ez du pertsonala handituko, ez zerbitzua ematen ari dena ordezkatuko, non eta Udaleko Gobernu Batzarrak onartzen ez dion. Horretarako, aurretik behar bezala arrazoituta justifikatu beharko du zerbitzua ezin duela eman pertsonala handitu gabe; kasu horretan, Udalak kontratazioa baldintzatu ahal izango du.<br><br>f) Zerbitzua behar bezala emateko behar diren makinak eta produktuak jartzea. Ikuskaritza teknikoaren ondoren tresnak edota makinak berritzea eskatu daiteke, eskaintzen den zerbitzurako egokiak ez badira; kalteak ez dira ordainduko.<br><br>g) Kontratua formalizatu aurretik, besteri (pertsonei edo gauzei) eragindako kalteetarako erantzukizun zibileko aseguru poliza bat sinatzea, 600.000,00 euroko bermekoa.<br><br>h) Langile gehiago hartu behar izanez gero, aurrez Udalaren baimen espresa beharko da. Bestalde, langile horiek Tolosako egoiliarren artean aukeratu beharko ditu, INEMen bitartez eta gizarte-sektore babesgabeenen alde egiteko irizpidea erabilita. | contenido del mismo.<br><br>c) Respetar el objeto del contrato y los límites establecidos en el mismo, debiendo con la diligencia debida, garantizando en todo momento su correcta ejecución.<br><br>d) La observancia de las directrices emitidas por el Ayuntamiento de Tolosa, permitiendo al responsable del servicio la inspección de la ejecución del contrato.<br><br>e) Poner en todo momento a disposición del servicio todo el personal preciso para su correcta ejecución No obstante, no procederá a la ampliación del personal ni a la sustitución del que venga prestando, salvo que expresamente lo autorice el órgano de gobierno del Ayuntamiento (Junta de Gobierno) previa justificación fundada en la imposibilidad de prestar el servicio encomendado sin dicha ampliación, en cuyo caso el Ayuntamiento podrá condicionar la contratación en lo que considere oportuno.<br><br>f) Aportar tanto la maquinaria como los productos necesarios para la correcta ejecución del servicio. La inspección técnica podrá exigir la renovación del equipo y/o máquina que no se adecúe, a su juicio, a las exigencias del servicio ofertado, sin indemnización alguna.<br><br>g) Suscribir una póliza de seguros de responsabilidad civil de daños a terceros, por importe de 600.000 euros. de garantía, previamente a la formalización del contrato.<br><br>h) Caso de precisar la contratación de personal, se necesitará la previa autorización expresa del Ayuntamiento, deberá seleccionarlo entre los residentes en Tolosa a través del INEM y con el criterio de favorecer a los sectores sociales más desprotegidos. |
| Kontratistak bete beharko ditu lan, Gizarte Segurantza eta segurtasun eta higiene alorreko lege xedapenak, eta betetzen ez | El contratista está obligado al cumplimiento de las disposiciones legales vigentes en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad e |

| | |
|---|---|
| badu, Udalak ez du bere gain erantzukizunik izango. | higiene en el trabajo, quedando la Administración exonerado de responsabilidad por este incumplimiento. |
| 10. KONTRATISTEN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA GAUZATZERAKOAN BESTERI ERAGINDAKO KALTEETAN | 10. RESPONSABILIDAD DEL CONTRATISTA POR LOS DAÑOS CAUSADOS A TERCEROS DURANTE LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO |
| Kontratista izango da kontratua gauzatzerakoan egiten diren jardueren ondorioz sortutako kalte-galeren erantzulea, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legeko 198. artikuluak zehaztu bezala. | El contratista será responsable de los daños y perjuicios que se causen como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 198 de la ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público. |
| 11. KONTRATUA ALDATZEA | 11. MODIFICACIONES DEL CONTRATO |
| Administrazioak kontratua aldatu dezake ustekabekoei aurre egiteko, interes publikoa betetze aldera, eta kontratistak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Horrek ez du esan nahi Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 284.c) artikulua bete behar ez denik. | La Administración podrá modificar el contrato, por razones de interés público, debido a necesidades nuevas o causas imprevistas, no teniendo derecho el contratista a indemnización alguna, sin perjuicio de lo que se establece en el artículo 284.c de de la ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público. |
| 12. BERMEA JASOTZEA ETA BERMEAREN EPEA | 12. RECEPCIÓN Y PLAZO DE GARANTÍA |
| Kontratua nolakoa den ikusita, ez da berme eperik jarri. | Dada la naturaleza de este contrato no se prevé el establecimiento de un plazo de garantía. |
| 13.- ARAU-HAUSTEAK | 13.- INFRACCIONES |
| Hiru mota daude: oso larriak, larriak eta arinak. | Las infracciones que cometa el Contratista en la ejecución de los distintos trabajos que se clasificarán como muy graves, graves y leves. |
| a) Hauexek dira arau-hauste oso larriak: | a) Tendrán consideración de infracciones muy graves: |
| 1.- Zerbitzua ematen berandu hastea, ezinbesteko kasuetan izan ezik. | 1.- La demora en el comienzo de la prestación de los trabajos, salvo causa de fuerza mayor. |
| 2.- Berehala ez esku-hartzea Zerbitzu Publiko eta Teknikoen ordezkariaren salaketa baten ondoren, edo aparteko edo presako jarduketa bat eskatzen duen egoera baten berri izan ondoren. | 2.- La no intervención inmediata tras la denuncia del Delegado de Servicios Públicos, Técnicos, o conocimiento de una situación que exija una actuación extraordinaria o urgente. |
| 3.- Zerbitzua nabarmen gaizki edo modu | 3.- La prestación manifiestamente |

| | |
|---|---|
| irregularrean ematea. | defectuosa o irregular de los trabajos. |
| 4.- Lanak berandu exekutatzea modu sistematikoan. | 4.- El retraso sistemático en la ejecución de los trabajos. |
| 5.- Teknikoen edo Zerbitzu Publikoen ordezkariaren aginduak ez betetzea. | 5.- Desobediencia de las órdenes de los Técnicos o del Delegado de Servicios Públicos. |
| 6.- Ezarritako baldintza edo epeak ez betetzea. Halere, beste akzio batzuk bideratu daitezke. | 6.- El incumplimiento de cualquiera de las condiciones y plazos establecidos, sin perjuicio de las acciones posteriores que de ello se deriven. |
| 7.- Zerbitzua ez ematea. | 7.- La no prestación absoluta del Servicio |
| b) Hauxek dira arau-hauste larriak: | b) Tendrán consideración de infracciones graves: |
| 1.- Lanak berandu exekutatzea, baina ez modu sistematikoan. | 1.- El retraso, no sistemático, en la ejecución de los trabajos. |
| 2.- Kontratistaren peko pertsonalak gorabeherak izatea herritarrarekin, tratu ez egokiagatik edo zerbitzua behar ez bezala emateagatik. | 2.- Los incidentes del personal afecto al contratista con el ciudadano, tanto por trato incorrecto como por deficiencia de la prestación del servicio. |
| 3.- Behin eta berriro arau-hauste arinak egitea. | 3.- La reiteración en la comisión de faltas leves. |
| c) Arau-hauste arinak izango dira, aurreikusita egon gabe, nolabait kaltetzen dituztenak plegu honetan eta baldintza teknikoen pleguan ezarritako baldintzak, zerbitzuari kalte ez larria eraginez. | c) Tendrán la consideración de infracciones leves todas las demás no previstas anteriormente y que de algún modo signifiquen detrimento de las condiciones establecidas en este Pliego y en el Técnico, con perjuicio no grave para el servicio. |
| 14.- ZIGORRAK | 14.- SANCIONES |
| Udalak ondorengo zigorrak jarri diezazkioke kontratistari: | Las sanciones que podrá imponer el Ayuntamiento al contratista serán las siguientes: |
| a) Arau-hauste oso larria egin badu, 150,25 euro. Behin eta berriro egiten badira arau-hauste oso larriak, zigor moduan ondorengoa jarri daiteke: kontratua bertan behera geratzea, bermea galtzea eta kalte-ordainak ordaindu behar izatea. | a) Por la comisión de infracción calificada como de muy grave, multa de 150,25 euros. La comisión reiterada de las infracciones muy graves, podrá ser sancionada con la resolución del contrato, pérdida de la fianza e indemnización por daños y perjuicios. |
| b) Arau-hauste larria egin badu, 60,10 euro. Bost arau-hauste larri eginez | b) Por la comisión de infracción grave, multa de 60,10 euros |

| | |
|---|---|
| gero, zigor moduan ondorengoa jarri daiteke: kontratua bertan behera geratzea, bermea galtzea eta kalte-ordainak ordaindu behar izatea. | La comisión de cinco infracciones graves, podrá ser sancionada con la rescisión del contrato, pérdida de fianza e indemnización por daños y perjuicios. |
| c) Arau-hauste arinak ohartarazpenarekin zigortu daitezke. | c) Las faltas leves podrán ser sancionadas con apercibimiento. |
| d) Zebitzua ez ematea honela zigortu daiteke:<br>• 240,40 euro, lehen hamar egun natural bakoitzeko.<br>• 420,71 euro, ondorengo egun bakoitzeko (11.etik hasita), ezinbesteko kasuetan izan ezik, eta hori frogatzea kontratistari dagokio. | d) La no prestación absoluta del Servicio se sancionará de la siguiente manera:<br>• 240,40- euros cada uno de los diez primeros días naturales.<br>• 420,71 euros cada uno de los siguientes a partir del 10º, salvo en casos de fuerza mayor, cuya prueba compete al Contratista. |
| Arau-hauste oso larri edo larriengatik zigorrak jarri baino lehen, kontratistari entzunaldia emango zaio. | La imposición de sanciones por faltas graves o muy graves requerirá en todo caso la previa audiencia del contratista |
| 15.- KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEKO ARRAZOIAK | 15. CAUSAS DE RESOLUCIÓN DEL CONTRATO |
| Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legeak, urriaren 30koak, 206 eta 284 artikuluetan ezarritakoak. | Constituyen causa de resolución del contrato de servicios las establecidas en los artículos 206 y 284 de la ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público. |
| 16.- AMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK | 16. PRERROGATIVAS DE LA ADMINISTRACIÓN |
| Honako hauek dira Administrazioaren eskumenak: kontratua interpretatzea, kontratua betetzerakoan sortzen diren zalantzak argitzea, kontratua interes publikoa dela eta aldatzea, kontratua bertan behera uztea eta horren eraginak zehaztea. Hori, betiere, mugak gainditu gabe eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeko betekizunak eta ondorioak kontuan hartuta. | Corresponden a la Administración las prerrogativas de interpretar el contrato, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlo por razones de interés público, acordar su resolución y determinar los efectos de ésta, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos establecidos en ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público. |
| **<u>II. KONTRATATZEKO PROZEDURA</u>** | **II.- <u>PROCEDIMIENTO PARA CONTRATAR</u>** |
| 17. KONTRATUA ESLEITZEKO PROZEDURA | 17. PROCEDIMIENTO Y FORMA DE ADJUDICACION |
| Kontratu honen esleipena erreserbatuta dago | La adjudicación del presente contrato se |

| | |
|---|---|
| enpleguko zentro bereziei: langileen % 70ek, gutxienez, ezgaitasunen izan behar du. | realizará por procedimiento reservado a centros especiales de empleo, con al menos 70% de trabajadores con discapacidad. |
| Esleipena egiteko oinarritzat hartuko diren irizpideak, garrantziaren arabera zerrendatuta, handienetik txikienera, eta emandako ponderazioaren arabera, baldintza teknikoen pleguko 19 klausulan daude. | Los criterios que han de servir de base para la adjudicación del procedimiento, relacionados por orden decreciente de importancia y por la ponderación que se les atribuye, son los previstos en la claúsula 19 del Pliego de Prescripciones Técnicas. |
| 18. KONTRATATZEKO AHALMENA ETA KAUDIMENA | 18. CAPACIDAD Y SOLVENCIA PARA CONTRATAR |
| Kontratazio prozedura honetan parte har dezakete pertsona fisiko eta juridikoek, baldin eta zuzenbide eta jarduera ahalmenak badituzte, ekonomi-, finantza- eta lanbide-kaudimena eta kaudimen teknikoa ziurtatzen badute eta ez badute Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 49. artikuluan aipatzen diren kontratatzeko debekurik. | Podrán tomar parte en este procedimiento de contratación las personas naturales o jurídicas que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, acrediten su solvencia económica, financiera y técnica o profesional y no estén incursas en ninguna de las prohibiciones para contratar establecidas en el artículo 49 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público. |
| Parte har dezakete, gainera, bere kasa edo baimendutako pertsona baten bitartez (ordezkoari horretarako ahalmena eman behar zaio). Pertsona juridiko baten ordezkaria erakundeko kideren bat izanez gero, ordezkari izateko eskumena duela ziurtatu behar du, dokumentu baten bitartez. Bi kasuetan, ordezkariak aipatu ezintasunen bat badauka, ezingo du parte hartu. | Asimismo, podrán hacerlo por sí o representadas por persona autorizada, mediante poder bastante otorgado al efecto. Cuando en representación de una persona jurídica concurra algún miembro de la misma, deberá justificar documentalmente que está facultado para ello. Tanto en uno como en otro caso, al representante le afectan las causas de incapacidad para contratar citadas. |
| Azkenik, lizitatzaileek helburu izan behar dute kontratu honekin zerikusi zuzena duten jarduerak egitea, eta kontratua behar bezala gauzatzeko adinako antolakuntza izan behar dute, giza-baliabide zein baliabide materialei dagokienez. | Además los licitadores deberán tener como finalidad realizar actividades que tengan relación directa con el objeto del presente contrato y disponer de una organización dotada de elementos personales y materiales suficientes para la debida ejecución del mismo. |
| 19.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA | 19.- PRESENTACION DE PROPOSICIONES |
| Kontratazio honen espedientea eta dagokion dokumentazio teknikoa Tolosako Udaleko Ingurumen Departamentuan egongo dira, 08:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, lizitazio iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Era berean, plegua ikusgai egongo da Udalren web orrian: www.tolosakoudala.net. | El expediente de esta contratación, así como la documentación técnica unida al mismo, podrá ser examinado en el Departamento de Medio Ambiente del Ayuntamiento de Tolosa, de 8 a 14 horas, de lunes a viernes, a partir del siguiente a aquél en que aparezca publicado el anuncio de esta licitación. Asimismo, el pliego podrá ser examinado en la página Web del Ayuntamiento: tolosakoudala.net. |

| | |
|---|---|
| Proposamenak udal erregistroan aurkeztu behar dira, aurreko paragrafoan adierazitako ordutegian; horretarko, 52 egun natural daude, kontratazio-iragarkia Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialera bidaltzen denetik kontatzen hasita. Epea larunbatean amaitzen bada, azken eguna hurrengo lehen egun balioduna izango da. | Las Proposiciones se presentarán en el Registro del Ayuntamiento en el horario indicado, durante el plazo de 52 días naturales, contados desde la fecha de envío del anuncio de contratación al DOUE. Caso de coincidir el último día en sábado, éste se trasladará al primer día hábil siguiente. |
| Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren jasotako proposamenak ez dira onartuko, nahiz eta Correosera epea amaitu baino lehen eraman, salbu kontratazio organoari jakinarazten bazaio, telex, fax edo telegrama bitartez, eskaintza korreoz bidalitako egun berean. | Las proposiciones presentadas con posterioridad no serán admitidas aunque conste que se entregaron en Correos antes de la finalización del plazo, salvo que se remita al Organo de Contratación por telex o telegrama, la justificación de la fecha de remisión de la solicitud en el mismo día que se envió por correo. |
| Lizitatzaileek hiru gutun-azal aurkeztu behar dituzte (A, B eta C), itxita eta gainean honako hau idatzita: "PROPOSAMENA, PARTE HARTZEKO TOLOSAKO UDALERRIKO PARKEAK ZAINTZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOAN —PROZEDURA ERRESERBATU BIDEZ EGINGO DA—". | Los licitadores deberán presentar tres sobres cerrados (A B y C), en cada uno de los cuales figurará la inscripción "PROPOSICIÓN PARA TOMAR PARTE EN LA CONTRATACION POR PROCEDIMIENTO RESERVADO DEL SERVICIO DE MANTENIMIENTO DE PARQUES Y JARDINES DEL MUNICIPIO DE TOLOSA". |
| Gutun-azal guztietan jarri behar dira enpresaren izena, proposamena sinatu duenaren izen-abizenak eta izaera; gutun-azalak ere sinatu egin behar dira. | En cada sobre se indicará la denominación de la empresa, nombre y apellidos de quien firme la proposición y el carácter con que lo hace, debiendo estar los tres sobres también firmados. |
| A GUTUN-AZALA: KONTRATATZEKO AHALMENA ETA KAUDIMENA. Ondorengo dokumentuak eduku behar ditu: | El sobre "A" se subtitulará "CAPACIDAD Y SOLVENCIA PARA CONTRATAR" y contendrá los siguientes documentos: |
| a) Nortasun agiria, lizitatzaileak bere izenean badihardu. Baldin eta beste pertsona edo entitate baten ordezkari bada, ahalorde askietsia eta legalizatua. | a) Documento Nacional de Identidad si el licitador actúa en nombre propio. En el caso de que se actúe en representación de otra persona o entidad, poder bastanteado y legalizado. |
| b) Eskatzailea pertsona juridikoa bada, aurkeztu behar ditu osaera eskritura eta, hala badagokio, aldaketa eskritura, Merkataritza Erregistroan behar bezala erregistratuta. Horrez gain, identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) ere aurkeztu behar du. Espainia ez Europar Batasuneko | b) Cuando el licitador sea una persona jurídica, escritura de constitución o modificación debidamente inscrita en el Registro Mercantil y número de identificación fiscal, siendo suficiente cuando se trate de empresarios no españoles de estados miembros de la |

| | |
|---|---|
| beste estatu kideetako enpresaburuek egiaztatu behar dute erregistro profesional edo komertzial batean izena emanda daudela, dagokion estatuko legeriak hala eskatzen duenean. | Comunidad Europea, acreditar su inscripción en un registro profesional o comercial cuando este requisito sea exigido por la legislación del Estado respectivo. |
| c) Aitorpena ez daukala Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legeko 49. artikuluan aipatzen diren kontratatzeko debekurik. | c) Declaración responsable de no estar incurso en ninguna de las prohibiciones de contratar enumeradas en el artículo 49 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público. |
| d) Behin-behineko bermea jarri izanaren agiria. | d) Documento de constitución de la correspondiente fianza provisional |
| e) Zerga-betekizunak eta Gizarte Segurantzakoak eguneratuta dituelako egiaztagiria. | e) Documento acreditativo de estar al corriente en el pago de las correspondientes obligaciones tributarias y de la Seguridad Social. |
| f) Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatzeko agiria, zerbitzua eman behar duen kontratistaren sailkapenaren bitartez: **O Taldea, 6 Azpitaldea, D Kategoria**. | f) Documento que acredite la solvencia técnica, a través de la clasificación del contratista que habilite para contratar el servicio: **Grupo O, Subgrupo 6, Categoría D** |
| g) Enpresaburu talde batek aldi baterako enpresa elkartea osatzen badu, enpresa bakoitzak egiaztatu behar du jarduteko ahalmena baduela, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera; halaber, proposamenean azaldu behar dute enpresa bakoitzak zer lan egingo duen, guztien kaudimen betekizunak zehazte eta egiaztatze aldera. | g) En el caso de que varios empresarios acudan a la licitación constituyendo una Unión Temporal de Empresas, cada una de las que la componen deberá acreditar su capacidad de obrar conforme a lo establecido en el punto anterior. Igualmente, indicarán en la proposición la parte del objeto que cada miembro de la UTE realizaría, con el fin de determinar y comprobar los requisitos de solvencia de todos ellos. |
| h) Atzerriko enpresek aitorpen osagarri bat aurkeztu behar dute, adierazteko kontratuan intzidentzia zuzen edo zeharkakorik gertatzen bada, Espainiako epaitegi eta epaimahaien jurisdikzioari men egingo dietela eta, hala badagokie, atzerrian dagokien foru jurisdikzionalari uko egingo diotela. | h) Para las empresas extranjeras la declaración de someterse a la jurisdicción de los Juzgados y Tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder al licitante. |

| | |
|---|---|
| i) Finantza kaudimenaren egiaztagiria, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legeak, urriaren 30ekoak, 64. Artikuluan adierazitako moduetako edozeinetan. | i) Documento acreditativo de la correspondiente solvencia financiera, de cualquier de las formas señaladas en el artículo 64 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público. |
| j) Enpleguko Zentro Berezia delako egiaztagiria eta zentro horietako langileen % 70ek, gutxienez, ezgaitasunen bat baduela, haren ezaugarriengatik edo larritasunagatik egoera normalean jarduera bat egitea eragozten diona. | j) Acreditacion de que el contratista es Centro Especial de Empleo, y que al menos el 70% de los trabajadores sean personas con discapacidad que, debido a la indole o a la gravedad de sus deficiencias, no puedan ejercer una actividad profesional en condiciones normales. |
| "B" gutun-azala: "Dokumentazio ponderablea, balioespen irizpideen bitartez". Horko dokumentazioak aukera eman behar du irizpide ponderableak haztatzeko, plegu teknikoko 19 artikuluak adierazitako balio-judizio baten bitartez; hau da, prezioa ez gainontzeko irizpide guztiak haztatuko dira, prezioa C gutun-azalean doa eta. | El sobre “B” se subtitulará “Documentación ponderable a través de criterios de valor”. Se incluirá la documentación, que permita ponderar los criterios ponderables a través de un juicio de valor señalados en el artículo 19 del pliego técnico, es decir, todos menos el precio, que se incluirá en el sobre C |
| "C" gutun-azala: | El sobre C, incluirá : |
| A) Proposamen ekonomikoa, ondorengo eredua jarraituz: | a) Proposición económica ajustada al siguiente modelo: |
| “Izen-abizenak: ………..............................……<br>Helbidea: ......................................................<br>Herria: .................... NAN: ..........................<br>Telefonoa: ..........................................<br>Gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa du parte hartzeko bere izenean/edo honen izenean:<br>.......…………………………………………………<br>Helbidea: .....................Tel:……….................<br>Herria: ..……………....................................<br>IFK/NAN zk. .................................<br>Ezagutzen ditu Tolosako Udalerriko parkeak zaintzeko zerbitzua prozedura erreserbatu bidez kontratatzeko Udalak onartu dituen plegua eta gainontzeko baldintza osagarriak. Honako aitorpen hau egiten du: | D ..............................................................<br>con domicilio en.......................................................<br>CP. . . . . . . . . . . . . , D. N. I. nº. . . . . . . . . . . . . ., teléfono. . . . . . . . . . . en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, en nombre propio (o en representación de), con domicilio en......................................................................<br>....................................<br>CP. . . . . . . . . . , teléfono. . . . . . . . . . . . . . . . . . , y D.N.I o C. I. F. (según se trate de persona física o jurídica). . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . , enterado del procedimiento convocado por ...........................................................................<br>.., para la contratación de. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . declaro: |
| 1.- Konpromisoa hartzen du kontratua beteko duela prezio honekin: ............... euro, eta horri gehitu behar zaio BEZari dagokiona: ................. euro; beraz, guztira, urtean, .................... euro. Prezio horretan sartuta | 1º) Que me comprometo a su ejecución por el precio de................................euros., más.....................euros, correspondientes al..........% de I.V.A., siendo el total el de ................anuales debiendo entenderse |

| | |
|---|---|
| daude kontzeptu guztiak, edozein zerga alorreko zergak, gastuak, tasak eta arielak barne, baita kontratistaren industri irabazia ere. | comprendidos en el precio todos los conceptos incluyendo los impuestos, gastos, tasas y arbitrios de cualquier esfera fiscal al igual que el beneficio industrial del contratista. |
| 2.- Irakurri ditut Baldintza Teknikoen Agiria, Administrazio Klausula Partikularren Agiria eta kontratua arautzen duten gainerako dokumentuak, eta ontzat hartzen ditut, oso-osorik. | 2º) Que conozco el Pliego de Condiciones Técnicas, el Pliego de Condiciones en materia de Prevención de Riesgos, el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y demás documentación que ha de regir el presente contrato, que expresamente asumo y acato en su totalidad. |
| 3.- Ordezkatzen dudan enpresak irekiera, instalazio eta funtzionamenduaren gainean indarrean dagoen araudiko betekizun eta eginbehar guztiak betetzen ditu. | 3º) Que la empresa a la que represento, cumple con todos los requisitos y obligaciones exigidos por la normativa vigente para su apertura, instalación y funcionamiento. |
| .............(e)an, 2010eko ...........aren ......(e)an. | En.................., a.....de...................de 20...... |
| Gainera, azterketa ekonomikoa aurkeztu behar da, zehatz-mehatz azalduko duena eskainitako prezioa justifikatzen duen kostua, batik bat, zerbitzuari adskribatuko zaizkion langile, makina eta ibilgailuena. | Además, se incluirá también un estudio económico detallado del coste del servicio que justifique el precio ofertado, haciendo especial hincapié en el coste del personal a adscribir al servicio, maquinaria y vehículos |
| 20.- AGIRIAK SAILKATZEA ETA PROPOSIZIOAK IREKITZEA | 20.- CALIFICACION DE DOCUMENTOS Y APERTURA DE PROPOSICIONES |
| Hauexek osatuko dute kontratazio-mahaia: | La Mesa de Contratación estará constituida por : |
| Lehendakaria:<br>Jokin Azkue Arrastoa, alkateordea.<br>Bokalak:<br>Jose Luis Unanue Ugalde, udal idazkaria<br>Karmele Contreras Goikoetxea, Administrazio Orokorreko teknikoa.<br>Antton Lekuona, Ingurumen teknikoa.<br>Jose Manuel Olazabal Martinez, kontuhartzailea, edo Paulino Alonso Eraso, Kontuhartzailetzako teknikoa.<br>Idazkaria:<br>Departamentuko administraria. | Presidente:Jokin Azkue Arrastoa, Teniente Alcalde<br>Vocales: Jose Luis Unanue Ugalde, secretario del Ayuntamiento<br>Karmele Contreras Goikoetxea, Técnico de Administración General<br>Antton Lekuona, Técnico de Medio Ambiente<br>Jose Manuel Olazábal, interventor, o Paulino Alonso , Técnico de Intervención<br>Secretaria: administrativa del Departamento. |
| Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, Kontratazio Mahaiak "A" gutun-azaleko edukia sailkatuko du. Baldin eta aktas materialik badago, lizitatzaileari hiru egun balioduneko epea emango zaio hura zuzentzeko. | Vencido el plazo de presentación de proposiciones, la Mesa procederá a la calificación de la documentación recibida en tiempo y forma (sobre “A”), concediendo, si observase defectos materiales en la misma, un plazo de tres días hábiles para que el licitador subsane el error. |

| | |
|---|---|
| "B" gutun-azala irekiko dute proposamenak aurkezteko epea amaitu eta laugarren egun baliodunneko 13:00etan, ekitaldi publiko batean, salbu eta postaz bidali diren proposamenenak, kasu horretan urriaren 30eko 30/2007 Legeak dioena erabiliko baita. | El sobre B, que contiene los documentos relativos a los criterios cuya ponderación depende de un juicio de valor, será abierto en acto público el cuarto día hábil siguiente al de la finalización del plazo de presentación de proposiciones a las 13 horas, salvo en el caso de envío por correo en que se estará a lo dispuesto en la Ley 30/2007, de 30 de octubre.. |
| Gero, egin beharreko txostenak egin ondoren, Kontratazio-Mahaiak jakinaraziko ditu balio-judizioaren menpeko irizpideei esleitutako ponderazio edo haztapenak, eta "C" gutun-azalak irekiko dituzte. Ikusita balio-judizioaren bitartez baloratutako irizpideak eta haztapen edo ponderazio automatikoa duten irizpideak, Kontratazio-Mahaiak kontratuaren behin-behineko esleipena egin eta kontratazio-organora bidaliko dute, hau da, Gobernu Batzarrera, Osoko Bilkurak ahalmena emana baitio. | Posteriormente y previos los informes técnicos oportunos, la Mesa de Contratación dará a conocer la ponderación asignada a los criterios dependientes de un juicio de valor y procederá a la apertura del sobre C (Oferta económica). A la vista de la valoración de los criterios cuya ponderación dependa de un juicio de valor , y de los criterios cuya ponderación es automática, la Mesa de Contratación elevará la propuesta de adjudicación provisional del contrato al Organo de Contratación que haya de efectuar la misma, es decir, a la Junta de Gobierno, por delegación del Pleno. |
| 21.- KONTRATUAREN ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA | 21.- ADJUDICACION Y FORMALIZACION |
| Behin-behineko esleipena ez da behin betiko bihurtuko, baldin eta emandako epean esleipendunak ez baditu aurkeztu eskatutako agiriak. | La elevación a definitiva de la adjudicación provisional no podrá producirse si en el plazo concedido el adjudicatario no presenta los documentos que se le requieren |
| 22.- ESLEIPENDUNAREN BETEKIZUNAK | 22.-OBLIGACIONES DEL ADJUDICATARIO |
| a) Behin betiko bermea osatzea. | a) Constituir la garantía definitiva. |
| b) Aldizkari ofizialetako iragarkiak ordaindu. | b) Pagar los anuncios de esta licitación en los boletines oficiales |
| c) Erantzukizun zibileko aseguru-poliza aurkeztu. | c) Presentar la póliza de seguros de responsabilidad civil, prevista |
| d) Baldintza pleguak arrisku-prebentzioaz dioena bete. | d) Cumplimentar lo previsto en el Pliego de Condiciones en materia de prevención de riesgos. |
| e) Tolosako Udaletxean aurkeztu kontratua dokumentu administratibo batean formalizatzeko. | e) Comparecer, finalmente, en la Alcaldía del Ayuntamiento de Tolosa para formalizar el contrato en documento administrativo. |
| Kontratua ez bada formalizatzen kontratistaren erruz, Tolosako Udalak kontratua bertan behera uztea erabaki dezake, interesatuari | En el caso de falta de formalización del contrato por causas imputables al contratista, el Ayuntamiento de Tolosa, puede acordar la |

| | |
|---|---|
| entzunaldiaren tramitea eman eta gero, kalte-ordainekin. | resolución del mismo, previa audiencia del interesado, con indemnización de daños y perjuicios. |
| Kontratua gauzatzerakoan, ondorengo betekizun hauek izango ditu kontratistak:<br>• Zerbitzua plegu honetan ezarritakoaren arabera ustiatu behar du.<br>• Emakidaren xedea eta horretan ezarritako mugak errespetatu behar ditu; zerbitzua arretaz eman behar du, eta uneoro zerbitzua behar den moduan emango duela bermatu behar du.<br>• Udalak emandako jarraibideak bete behar ditu.<br>• Zerbitzua emateko behar den pertsonalari dagozkion Gizarte Segurantza, Aurreikuspen eta Laneko Segurtasuneko obligazioetan eguneraturik egon behar du.<br>• Agiri hauek aurkeztu behar ditu:<br><br>Hilero, fakturarekin batera, Gizarte Segurantzari egindako likidazioen kopia.<br>Urtean behin gutxienez, Zerga-Administrazioak emandako ziurtagiria, zerga-obligazioen ordainketak egunean dituela egiaztatzen duena; era berean, Gizarte Segurantzako obligazioak egunean dituelako ziurtagiria<br><br>• Erabiltzaileek eta, oro har, herritarrek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan atendituak izateko duten eskubidea errespetatuz eman beharko du zerbitzua.<br>• Herritarrentzako inprimakiak, oharrak eta jakinarazpenak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko ditu kontratistak.<br><br>• Udalarekin euskaraz izan behar du harremana, ahoz zein idatziz.<br><br>• Zerbitzura adskribatutako langileek euskara jakin behar dute zerbitzua behar bezala emateko moduan. | Durante la ejecución del contrato, deberá cumplir con las siguientes obligaciones:<br>• Explotar el servicio en la forma establecida en el presente pliego<br>• Respetar el objeto de la concesión y los límites establecidos, debiendo emitir el servicio con la diligencia debida, garantizándose en todo momento su correcta prestación.<br><br>• La observancia de las directrices emitidas por el Ayuntamiento.<br>• Estar al día en las obligaciones de Seguridad Social y Previsión y Seguridad en el Trabajo se originen con respecto al personal necesario para cubrir los servicios.<br>• Deberá presentar los siguientes documentos:<br>Mensualmente, juntamente con la factura, una copia de las liquidaciones realizadas a la Seguridad Social.<br>Anualmente, como mínimo, un certificado, emitido por la Administración Tributaria, de encontrarse al corriente en el pago de las obligaciones tributarias, y un certificado de estar al corriente de las obligaciones con la Seguridad Social<br>• -Estará obligado a realizar la prestación respetando y facilitando el derecho del usuario a ser atendido y a utilizar las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma<br>• El contratista estará obligado a proveer en euskera o en euskera y castellano los impresos, avisos y comunicaciones al público, de acuerdo con la Ordenanza de euskera.<br>• Su relación con el Ayuntamiento, tanto oral como escrita, se llevará a cabo en euskera.<br>• El personal a abscribir al servicio, deberá tener conocimiento de euskera en función de la correcta prestación del servicio. |
| **III. IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUMENA** | **III.- NATURALEZA, REGIMEN JURIDICO Y JURISDICCION COMPETENTE** |

| | |
|---|---|
| 23.- IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA<br><br>Plegu honen arabera egiten den kontratua administratiboa izango da eta kontratuan aurreikusi gabekoetarako aintzat hartuko dira administrazio publikoetako kontratazioei aplikatzen zaizkienak.<br><br>Klausula Adminitratibo Partikularren Plegu hau eta espedienteko gainerako dokumentazio teknikoa bat ez badatoz, Pleguak izango du lehentasuna. | 23.- NATURALEZA Y REGIMEN JURIDICO<br><br>El contrato que en base a este pliego se realice, tendrá carácter administrativo y en todo lo no previsto en él se estará a lo dispuesto en las normas aplicables a la contratación de las Administraciones Públicas.<br><br>En caso de contradicción entre el presente Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el resto de la documentación técnica unida al expediente, prevalecerá lo dispuesto en este pliego. |
| 24.- JURISDIKZIO ESKUMENA<br><br>Kontratua betetzerakoan sortzen diren auziak administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioan ebatziko dira. Hala ere, alderdiek adostu dezakete auziak ebazteko arbitrajera jotzea, indarrean dagoen legeriaren arabera. | 24.- JURISDICCION COMPETENTE<br><br>Las cuestiones litigiosas que se deriven del contrato se entenderán sometidas a la jurisdicción contencioso-administrativa, no obstante lo cual, las partes pueden acordar el sometimiento de sus litigios a arbitraje, conforme a lo establecido en la legislación vigente. |
| **KLAUSULA BEREZIA** | **CLÁUSULA ESPECIAL** |
| 1.- Enpresa esleipendunak ondorengo langileak hartu beharko ditu, beti ere beharrezkoa bada esleitutako zerbitzurako.<br><br>Ohartarazten da ondoren agertzen diren langileei errespetatuko zaizkiela oraingo enpresa esleipendunaren eta bere langileen artean indarrean dagoen Gipuzkoako Hitzarmen Kolektibotik eratorritako eskubideak eta obligazioak. | 1.- La Empresa adjudicataria estará obligada a absorber el siguiente personal, siempre que sea necesario para el servicio concedido.<br><br>Advirtiendo que al personal que se relaciona se le respetarán todos los derechos y obligaciones derivados del Convenio Colectivo en vigor en la Provincia de Gipuzkoa entre la actual empresa adjudicataria y sus trabajadores. |

| **Langilea**<br>***Trabajador*** | **NAN**<br>***D.N.I.*** | **Kategoria** | **Antzinatasuna**<br>***Antigüedad*** | **Kontratua** |
|---|---|---|---|---|
| Jose Maria Arsuaga Artola | 15.960.410 – C | Produkzioko buru teknikoa<br>*Jefe Tecnico Productivo* | 13.07.1.996 | Mugagabea<br>*Indefinido* |
| Juan Jose Casares Pinzolas | 15.934.117 – Q | 2 lan-taldeko arduraduna<br>*Encargado 2 Brigadas* | 06.11.1.995 | Mugagabea<br>*Indefinido* |
| Miguel Maria Manso Martija | 72.432.071 – B | Gidaria<br>*Chófer* | 22.04.2.002 | Mugagabea<br>*Indefinido* |
| Jesus Arroyo Tamayo | 15.929.301 - T | Gidaria<br>*Chófer* | 28.10.2.008 | Aldi baterako<br>*Temporal* |
| Ignacio Ugalde Azpeitia | 15.990.796 – T | Gidaria<br>*Chófer* | 20.11.2.003 | Mugagabea<br>*Indefinido* |
| Joseba Artola Aguirrezabala | 44.167.285 – V | B1 langilea<br>*Operario B1* | 15.05.1.999 | Mugagabea<br>*Indefinido* |
| Fco. Jose Ardibide Telleria | 15.927.716 - D | C1 langilea<br>*Operario C1* | 22.01.1.990 | Mugagabea<br>*Indefinido* |
| Mikel Galarraga Garmendia | 72.453.715 - N | A1 langilea<br>*Operario A1* | 22.06.2.005 | Mugagabea<br>*Indefinido* |
| Fco. Jose Galdin Perez | 72.443.287 - A | B1 langilea<br>*Operario B1* | 03.04.1.989 | Mugagabea<br>*Indefinido* |
| Miguel Martin Durajn | 44.159.726 - W | B2 langilea<br>*Operario B2* | 09.08.2.006 | Aldi baterako<br>*Temporal* |
| Jose Maria Ollacarizqueta Cobos | 72.437.991 - C | C1 langilea<br>*Operario C1* | 03.06.1.991 | Mugagabea<br>*Indefinido* |
| Miguel Angel Otamendi Pagola | 15.941.408 - Q | A2 langilea<br>*Operario A2* | 03.08.1.990 | Mugagabea<br>*Indefinido* |
| Fco. Matxinandiarena Mendizabal | 15.971.414 - F | A2 langilea<br>*Operario A2* | 01.04.1.982 | Mugagabea<br>*Indefinido* |
| Jose Manuel Rodriguez Aparicio | 35.775.804 - V | B1 langilea<br>*Operario B1* | 07.10.1.996 | Mugagabea<br>*Indefinido* |
| Javier Romero Delso | 15.915.232 - Z | B2 langilea<br>*Operario B2* | 13.11.2.002 | Erreleboko kontr.<br>*Cont. Relevo* |
| Jose Antonio Vazquez Martinez | 34.101.364 - T | B1 langilea<br>*Operario B1* | 21.08.1.996 | Mugagabea<br>*Indefinido* |
| Jose Patricio Velez Gonzalez | 44.142.709 - M | B2 langilea<br>*Operario B2* | 01.07.1.993 | Mugagabea<br>*Indefinido* |